

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Euskara eta Kultura foru diputatuaren 1540/2019 FORU AGINDUA, maiatzaren 14koa; Bizkaiko Foru Aldundiko azaroaren 27ko 153/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2019. urtean zehar Bizkaiko higiezin kultur ondarea berritzeko eraikuntza esku-hartzeak egiteko foru diru-laguntzetarako oinarri arautzailak eta deialdia.

Azaroaren 27ko 153/2018 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko higiezin kultura ondarea berritzeko 2019an egiten diren eraikuntzako esku-hartzeak egiteko foru diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi du (2018ko abenduaren 11ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 237 zk.).

Aipatutako foru dekretuaren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenak Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularri ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko azaroaren 27ko 153/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena egin eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra:
 - Andoni Iturbe Amorebieta
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Ana María De Castro Rubalcaba
Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Zuriñe Antoñana Ozaeta
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
 - Arantza González de San Roman González de San Román
Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Ataleko burua.



- Josu Maroto Peñagarikano
Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko Arkitektoa.
- Odezko mahaikideak:
 - Montserrat Petralanda Gorrotxategi
Bizkaiko Foru Aldundiko Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko burua.
 - Roberto Laso Gutierrez Solana
Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberitzeaz arduratzen den arkitektoa.
 - Jon Azkuenaga Urizar
Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberitzeaz arduratzen den arkitektoa.
- Idazkari titularra, botorik gabe:
 - Jaione Larrea Najera
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria:
 - Nahikari Gil Elorduy
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 14an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA